

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

NEKAZARITZA SAILA

Prozedura irekia, Arabako Foru Aldundiak eta Dulantziko herriak partzuergoan duten onura publikoko 251 mendiaren, "Monte Alto" izenekoaren, baso aprobetxamendua besterentzeko

1. Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Nekazaritza Saila. Nekazaritza Zuzendaritza. Mendi Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Administrazio Kudeaketa Atala.

c) Espedientearen zenbakia: 108/18.

2. Kontratuaren xedea: Arabako Foru Aldundiak eta Dulantziko herriak partzuergoan duten onura publikoko 251 mendiaren, "Monte Alto" izenekoaren, baso aprobetxamendua besterentzea.

a) Gauzatzeko epea: 18 hilabete emate akta izenpetzen denetik.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 59.806,60 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak:

Behin-behinekora: kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 (BEZa aparte), hots, 1.794,20 euro.

Behin betikoa: Kontratuaren esleipen zenbatekoaren (BEZa aparte) ehuneko 5. Zenbateko horri esleipen zenbatekoaren ehuneko 5eko berme osagarri bat gehituko zaio babes eta zaintza arrazoiengatik. Horiek horrela, bermea, guztira, esleipen zenbatekoaren ehuneko 10 izango da, BEZa aparte.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

www.araba.eus Hasiera >Herritarrak >Gaiak >Nekazaritza >Mendiak >Baso aprobetxamenduak >

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz).

Telefonoa: 945181818 Luzapena: 52849.

posta elektronikoa: jamurrio@araba.eus.

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua.

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz).

Telefonoa: 945181818 Luzapena: 52108.

Posta elektronikoa: laquintana@araba.eus.

Agiriak, dokumentazioa eta informazio osagarria eta gehigarria klausula ekonomiko-administratiboen agiriaren III. klausulan adierazitakoari jarraituz eskuratuko dira.

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa: ikusi administrazio klausula berezien taulako V.2.2 E1 eta E2 puntuak.

8. Eskaintzak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epemuga: 15 egun iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Baldin eskaintzak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunaren 14:30era arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikus administrazio klausula berezien taulako V. puntua.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Helbidea: Probintzia plaza, 5-behea.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

Eskaera eta gainerako agiriak postaz bidaliz gero, bidalketa eguna egiaztatuko da eta Administrazioaren Erregistro Orokorri bidalketa horren berri eman telex, fax edo telegrama bidez, egunean bertan. Bi baldintza horiek bete ezean, ez dira agiri horiek onartuko, baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen badira. Epe hori igaro eta hurrengo hamar egunetan agiririk jaso ez bada, agiri horiek ez dira onartuko inondik inora.

d) Behin eskaintza aurkeztuta, oso zergati arrazoituagatik baino ezin izango du baztertu eskaintzaileak.

e) Aldaerak onartzea: ez.

9. Eskaintzak irekitzea:

Erakundea: Mendi Zerbitzuaren bulegoak.

Helbidea: Probintzia plaza, 4-1. eskuina.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

“B” gutun azala (kontratatzeko gaitasuna) ekitaldi pribatuan irekiko da, bederatzietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun baliodunean.

A gutun azala (eskaintza ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da, hamar eta erdietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo seigarren egun baliodunean.

10. Informazio gehiago: ikus administrazio klausula berezien agiria.

11. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontu izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 16a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO